

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko urria

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
2. Gizarte Segurantzako afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. PMI konposatua
6. ELGAko aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,2 haziko da 2025ean.

2026an BPGaren hazkundea %1,9koa izango da.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,1 hazi zen irailean.

Afiliazioaren hazkundea antzekoa izan zen emakumeen (%1,2) eta gizonen (%0,9) artean.

3. Erregistratutako langabezia %1,0 gutxitu zen irailean.

Langabezia tasaren jaitsiera antzekoa izan da emakumeen eta gizonen artean.

4. Euskadiko KPIa %2,8ra jaitsi zen abuztuan .

Azpiko inflazioa egonkor mantendu zen uztailleko mailaren parean, %2,5ean.

5. Euroguneko jarduera berriz hazten hasi da, nahiz eta oraindik apala izan.

PMI konposatua 51,2an kokatu zen irailean, azken hamasei hilabeteetako mailarik altuenean.

6. ELGAk atzeratu du muga zergen eragina ekonomia globalean.

Munduko BPGren hazkundea hiru hamarren igo da, %3,2ra arte 2025ean eta %2,9ra arte 2026an.



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %2,2 haziko da 2025ean

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2025EKO HAZKUNDEA

%2,2




Euskal ekonomiarako aurreikuspenen egunera-
ketaren arabera, hazkundera %2,2koa izango da
2025erako eta %1,9koa 2026rako, eta aurreko
zenbatespenekin alderatuta, goranzko berrikus-
pena egin da. Dinamismo handiago hori, nagusi-
ki, barne eskariaren sendotasunean oinarritzen
da; horren baitan, familien kontsumoa izango da
motor nagusia, %2,3ko hazkundera aurreikusten
baita 2025ean eta %1,7koa 2026an. Inbertsioak
ere joera positiboa mantenduko du, nahiz eta
2026tik aurrera nolabaiteko moderazioa aurrei-
kusten den, ziurgabetasunagatik eta Europako
funtsen bultzada txikiagoagatik.

Kanpo arloak, bestalde, ahulezia erakusten ja-
rraituko du, hazkundeari ekarpen negatiboa egi-
nez (-0,3 puntu 2025ean eta -0,2 2026an), nazio-
arteko eta Europako merkataritzaren dinamismo
txikiagoa islatuz, bereziki inbertsio eta automo-
bilgintzako ondasunen industrian. Hala ere, es-
pero da EAEko esportazioak %2 baino gehiago
igoko direla 2025ean, eta %3 inguru 2026an. Zi-
fra horiek, aurreko urteetakoak baino txikiagoak
izan arren, hobetu egingo dira azken bi ekitaldie-
kin alderatuta.


GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreka, kanpoko ahuleziek eragina izango dute industrian, eta %0,4 baino ez da haziko 2025ean, nahiz eta 2026an suspertzea espero den. Eraikuntzak tonu ona mantenduko du, % 2,5eko hazkundearekin 2025ean eta %2,0ekin 2026an, bizitegi eskarian eta finantza baldintza onuragarriagoetan oinarrituta. Zerbitzuek sendotu egingo dute EAEko ekonomiaren eragile nagusi gisa: %2,7ko hazkunde tasa izango dute 2025ean eta %2,1koa 2026an, kontsumoak bultzatuta.

Lan eremuan, enplegua %1,4 haziko da 2025ean, eta %1,1 2026an; horrek esan nahi du urtero 14.000 eta 11.000 lanpostu inguru sortuko direla. Langabezia tasak behera egingo du, eta 2008tik minimoetara iritsiko da.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.



Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,1 hazi zen irailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,1 hazi zen irailean urte arteko tasan irailean, urtarritetik izaten ari diren balioetara asko urbilduz. Beraz, aldagai horrek bere bilakaeran egonkortasun nabarmena erakusten jarraitu du. Hilabete horretan, guztira, 1.018.270 afiliazio izan ziren, eta horrek errekorra ezarri zuen serie historikoan. Balio absolutuetan, afiliazioaren hazkundea 10.661 afiliazioetatik gertu egon da. Sexuaren araberako analisiak adierazten du

emakumeak arrakasta handiagoa izan zutela enplegua aurkitzeko garaian. Hala, emakumeen afiliazioak %1,1eko aldakuntza tasa izan zuen, eta gizonenak, berriz, %1,0koa. Tasa horien ondorioz lortu ziren afiliazio berriak oso antezkoak izan ziern gizonentzat (5.341) eta emakumeentzat (5.321). Hala ere, guztira, gizonen afiliazioa emakumeena baino handiagoa da oraindik ere (531.000 inguru eta 487.000 inguru).


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


IRAILAKO AFILIAZIOA

%1,1




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreei dagokienez, eraikuntza izan da sektorerik dinamikoena, %2,1eko hazkundearekin, eta industria ia egonkor mantendu da (%0,1). Zerbitzuetan enplegua %1,2 hazi da, eta lehen sektoreak azken bi hilabetetako joera negatiboa irauli du, %2,2ko hazkundea izanik. Jardue-

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



ra-adarrei dagokienez, nabarmentzekoak dira zerbitzu profesionalean eta osasun arloko jardueretan izandako igoerak, kasu bietan 2.000 afiliatu berritik gora erregistratu bait dira. Aldiz, merkataritzak eta etxeetako langileak jaitsierak izan dituzte.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2024ko iraila	2025eko iraila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	1.007.609	1.018.270	10.661
Industria manufakturagileak	174.898	174.854	-44
Merkataritza	135.687	135.173	-514
Osasun arloko jarduera	117.513	119.733	2.220
Hezkuntza	74.954	76.196	1.243
Administrazio jarduerak	70.699	71.944	1.245
Ostalaritza	70.241	71.404	1.163
Lanbide jarduerak	63.376	65.483	2.107
Eraikuntza	58.535	59.738	1.203
Administrazio publikoa	51.774	51.623	-151
Garraioa	46.488	47.866	1.378
Informazioa eta komunikazioa	28.137	28.190	176
Etxeko langileak I	28.014	27.430	-707
Bestelako zerbitzuak	25.813	25.871	58
Jarduera artistikoak	17.996	18.349	353
Finantza jarduerak	17.235	17.542	306
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.701	12.975	274
Ur horniketa	6.813	6.962	149
Higiezin jarduerak	4.362	4.465	103
Energia horniketak	1.766	1.800	34
Erauzketa industriak	520	572	52
Lurraldez kanpoko erakundeak	87	101	14

Iturria: Gizarte Segurantza.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Erregistratutako langabezia %1,0 gutxitu zen irailean

Irailean lan merkatuaren bilakaera positiboari eutsi zitzaion Euskadin, langabe gisa erregistratutako pertsonen kopurua %1,0 murriztu baitzen 2024ko hilabete beraren aldean. Guztira, 106.969 pertsona zenbatu ziren Lanbiden izena emanda, langabezia daudela jotzeko irizpideak betetzen dituztenak, hau da, duela urtebete bai-


no 1.027 gutxiago. Sexuaren arabera, jaitsiera nabarmenagoa izan zen emakumeen artean (-%1,0) gizonen artean baino (-%0,9), 605 eta 422 langabe gutxiagorekin, hurrenez hurren. Hala ere, balio absolututan, emakumeen langabezia handiagoa da oraindik, 62.378 emakumerekin eta 44.591 gizonekin.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. IRAILA

-%1,0




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



25 urtetik beherakoen langabezia %0,7 murriztu zen, baina aurreko hiru hilabeteetan baino erritmo txikiagoan. Adin horretatik gorakoen artean, jaitsiera %1,0koa izan zen, batez beste-koaren ildotik. Sektoreka, eraikuntza nabarmentzen da, %8,4ko jaitsiera handiarekin, eta, ondoren, lehen sektorea (-%2,4).

LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzuak %1,0 jaitsi ziren eta industria (%1,2) izan zen hazkundera izan zuen sektore bakarra. Aurreko lan egoerari dagokionez, aurreko enplegatuen artean langabezia %1,3 jaitsi zen, baina %1,1 igo zen aurretik lanik egin ez zutenen artean. Atzerritarren langabeziak %2,4 egin zuen gora, joera orokorraren aldean.

LANGABEAK

	2024ko iraila	2025eko iraila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	107.996	106.969	-1.027
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.152	18.314	162
Bizkaia	61.379	60.307	-1.072
Gipuzkoa	28.465	28.348	-117
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	45.013	44.591	-422
Emakumeak	62.983	62.378	-605
25 urtetik beherakoak	9.386	9.318	-68
25 urte baino gehiago dutenak	98.610	97.651	-959
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	1.782	1.739	-43
Industria	10.327	10.448	121
Eraikuntza	5.898	5.402	-496
Zerbitzuak	76.157	75.394	-763
Lehenago lan egin dutenak	94.164	92.983	-1.181
Lehenago lan egin ez dutenak	13.832	13.986	154
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	19.778	20.246	468

Iturria: SEPE.




**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

INFLAZIOA

Euskadiko KPIa %2,8ra jaitsi zen abuztuan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Abuztuko urte arteko KPIa %2,8 igo zen, aurreko hilean baino bi hamarren gutxiago. Azpiko inflazioa egonkor mantendu zen uztailarekin alderatuta; izan ere, landutako elikagaien igoera txikia industria-ondasunen garestitze txikiagoak indargabetu zuen. Hondar inflazioak ere euste zantzuak izan zituen, uztailan %5,6 izatetik abuztuan %4,9 izatera igaro baitzen.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2023	2024	2025eko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	2,8	2,8
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	1,8	0,3
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	0,6	0,1
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,4	1,7
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	4,9	0,7
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	6,3	0,4
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	3,9	0,3


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELIKAGAIEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



Azpiko inflazioa egonkorra izanik, abuztuko inflazioaren moteltzea, uztailaren aldean, hondar-inflazioaren osagaiek azaltzen dute. Zehazki, landu gabeko janariak gutxiago garestitu zirelako, uztailan %7,9 izatetik abuztuan %6,3 izatera igaro baitziren. Bestalde, etxebizitza, ur, elektrizitate eta beste erregaien taldea izan zen berriro inflazio tasarik altuena izan zuena, urte arteko %6,3ko tasarekin, nahiz eta aurreko hilaren aldean zortzi hamarren moteldu zen. Edari

alkoholdunen eta tabakoaren (%4,6) eta jatetxe eta hotelen (%4,1) gehikuntzak ere nabarmendu ziren; jantzien eta oinetakoen (%0,1) eta aisia eta kulturaren (%0,7) gehikuntzak, berriz, askoz ere motelagoak izan ziren. Beraz, abuztuan azpiko inflazioa egonkor mantendu zen bitartean, hondarrekoak, moteldu bazen ere, maila altuetan jarraitu zuen lehengaien garestitze globalaren testuinguruan.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,8	2,7	2,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,8	2,3	3,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,6	4,2	3,2
Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,7	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	6,3	6,0	1,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,5	0,8	0,6
Osasuna	2,1	2,0	2,3
Garraioa	1,1	1,2	0,7
Komunikazioak	0,9	0,8	-2,5
Aisia eta kultura	0,7	0,7	1,1
Hezkuntza	2,7	2,6	4,0
Jatetxeak eta hotelak	4,1	4,3	3,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,4	3,4	4,0

Iturria: INE, eta Eurostat.

PMI KONPOSATUA

Euroguneko jarduera berriz hazten hasi da, nahiz eta oraindik apala izan


Irailan, euroguneko PMI konposatua 51,2 izan zen, azken hamasei hilabeteetako maximoa. Indizean erregistratutako hazkundera batez ere zerbitzuen sektorearen gorakadak eragin zuen; izan ere, sektore horren PMIa 51,3ra igo zen, zortzi hilabetetan lortu zuen daturik onena. Manufaktura sektoreak, aldiz, amore eman zuen berriro, bi hilabetez gorantz egin ondoren. Zehazki, manufaktura produkzioaren indizea

50,9ra jaitsi zen (abuztuan 52,5), eta uztailetik izan duen erregistrorik txarrena markatu zuen, industrian izandako bultzada galeraren isla. Barne eskariak hobekuntza txiki bat izan zuen, baina esportazio eskaera berriek murrizten jarraitu zuten eta enpresen konfiantza ahuldu egin zen. Enplegu mailek behera egin zuten pixka bat, eta kostuen eta salmenta prezioen inflazioa moteldu egin zen aurreko hilabeteen aldean.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2025EKO IRAILA


51,2




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdeen araberako analisiak profil positiboa erakutsi zuen Alemanian, 52,0ra igo baitzen bere emaitza, zerbitzuen suspertzeari esker (51,5). Aitzitik, Frantzian (48,1) okertzea nabarmena izan zen eta azken bost hilabeteetako daturik txarrena izan zuen, zerbitzuen beheranzko bilakaera jarraituaren eta manufaktura arloaren uzkurdua berriaren ondorioz.

Eurogunetik kanpo, Estatu Batuetako PMI konposatua 53,9ra jaitsi zen. Atzerakada hori zerbitzuen eta manufakturen hedapen motelagoaren ondorio izan zen, nahiz eta jarduera oraindik ere hazkunde eremuan mantendu. Moteltze hori kostuen presio iraunkorren eta merkataritza ziurgabetasunaren aurrean enpresen zuhurtziaren testuinguruan gertatu zen.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

ELGAk atzeratu du muga zergen eragina ekonomia globalean

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Estatu Batuek duela gutxi muga zergak igo izanak hazkunde ekonomiko globalari eragingo dio, nahiz eta jardueran izango duen eragina espero zen baino beranduago nabarituko den. Horrela, munduko BPGaren hazkunde hiru hamarren igo da, 2025ean %3,2ra eta 2026an %2,9ra arte. Aldiz, G20ko ekonomien inflazio orokorra %3,4tik %2,9ra jaitsiko da. Estatu Batuek dezelerazio nabarmena izango dute, 2025ean %1,8 haziko baitira eta 2026an %1,5, muga zergen eraginaren eta immigrazioaren beherakadaren ondorioz.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Munduko ekonomia	3,3	3,2	2,9	0,3	0,0
AEB	2,8	1,8	1,5	0,2	0,0
Eurogunea	0,8	1,2	1,0	0,2	-0,2
Alemania	-0,5	0,3	1,1	-0,1	-0,1
Frantzia	1,1	0,6	0,9	0,0	0,0
Italia	0,7	0,6	0,6	0,0	-0,1
Espainia	3,2	2,6	2,0	0,2	0,1
Erresuma Batua	1,1	1,4	1,0	0,1	0,0
Kanada	1,0	1,1	1,2	0,1	0,1
Japonia	0,1	1,1	0,5	0,4	0,1
Txina	5,0	4,9	4,4	0,2	0,1
India	6,5	6,7	6,2	0,4	-0,2
Brasil	3,4	2,3	1,7	0,2	0,1


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Eurogunean, hazkundera %1,2koa izango da 2025ean eta %1,0ekoa 2026an, merkataritza tirabiren, ziurgabetasun geopolitikoaren, zerga politika hedakorren inguruko itxaropenaren eta inflazioa kontrolatzea lortu izanaren eraginpean. Gehien atzeratutako sektorea manufaktura industria izango da, nazioarteko merkataritzaren mende dagoena, batez ere lehenetik egiturazko arazoak zituzten oztipo berriei lotutako ondasunetan.

ELGAK ohartarazi du funtsezko arriskuak daudela oraindik: muga zergen igoera berriak, inflazio presioak eta bat bateko doikuntzen arriskua errenta aldakorreko zein finkoko merkatuetan.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
BPG	3,0	2,5	2,8	2,3	2,0	2,1	2,2
Barneko azken kontsumoa	1,9	2,8	2,8	2,3	2,4	2,4	2,3
Familien kontsumoa	2,0	2,5	2,5	1,9	2,2	2,6	2,9
Administrazioaren kontsumoa	1,9	3,5	3,7	3,9	3,1	1,9	0,2
Kapital eraketa gordina	2,4	2,7	2,9	2,5	2,2	2,3	3,5
Barne eskaria	2,1	2,8	2,8	2,4	2,4	2,4	2,6
Esportazioak	-1,1	0,1	1,3	2,6	0,6	2,0	0,8
Inportazioak	-2,2	0,4	1,4	2,6	1,1	2,4	1,4
Lehen arloa	12,2	4,3	4,5	3,4	3,4	0,6	-0,4
Industria eta energia	2,2	2,0	2,6	1,8	0,7	0,4	0,1
Eraikuntza	4,2	2,0	2,0	1,4	1,3	1,7	3,1
Zerbitzuak	3,3	2,9	3,1	2,7	2,5	2,7	2,8
Balio erantsi gordina	3,2	2,6	2,9	2,4	2,0	2,1	2,1
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	1,6	1,4	1,4	1,9	2,3	2,4
Enplegua	1,8	1,8	1,9	1,6	1,6	1,5	1,4

2024ko datuak aurrerapena dira eta 2025ekoak behin-behineko datuak dira.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Iraila

2024			2025								
Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.	Mar.	Apir.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abuz.	Iraila
95,1	97,9	96,3	99,4	95,8	94,3	93,5	95,1	99,3	103,0	102,7	103,1

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

Euskal ekonomiaren termometroa 103,1ean kokatu zen irailean, hazkunde biziko eremuan duen posizioa sendotuz. Euskal familien kontsumoak aurrera egiten du nabarmen, inflazioaren moderazioari esker, eta sektore publikoaren kontsumoak ekarpen apalagoa egiten du. Inbertsioa da osagairik dinamikoena, hazkundearen eragile nagusi gisa duen zeregina indartuz. Sektoreen ikuspegitik, eraikuntzak eta zerbitzuak nabarmentzen dira jardueraren eta enpleguaren hazkunde esanguratsuagatik, eta industriak, berriz, ia geldirik dago, Europako ekonomia gehienek ahultasunaren ondorioz.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025		2025	2026				2026
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,3	2,2	2,2	2,0	2,0	1,9	1,9	1,9
Barneko azken kontsumoa	2,4	2,3	2,3	2,2	2,3	2,1	1,9	2,1
Familien kontsumoa	2,8	2,5	2,7	2,3	2,2	2,2	2,0	2,2
Administrazioaren kontsumoa	1,0	1,6	1,2	1,7	2,7	1,7	1,5	1,9
Kapital eraketa gordina	3,4	3,3	3,1	3,1	1,7	2,1	2,4	2,3
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,5	2,5	2,4	2,2	2,1	2,0	2,2
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,4	-0,3	-0,3	-0,4	-0,2	-0,2	-0,1	-0,2
Lehen arloa	5,4	4,1	2,5	0,5	0,8	0,4	0,9	0,7
Industria	0,3	1,0	0,4	1,5	1,6	1,6	1,7	1,6
Eraikuntza	2,8	2,6	2,5	2,3	1,5	1,8	2,4	2,0
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,7	2,2	2,1	2,0	1,9	2,1
Balio erantsi gordina	2,2	2,2	2,1	2,0	2,0	1,9	1,9	2,0
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	2,8	2,6	2,5	1,4	2,0	1,7	1,7	1,7
Lanaldi osoko lanpostuak	1,4	1,2	1,4	1,1	1,2	1,1	1,0	1,1
Landunak (BJA)	1,5	1,1	1,3	0,9	1,2	1,2	1,1	1,1
Langabezia tasa	6,4	6,5	6,4	6,7	6,2	6,1	6,3	6,3

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA	2,3	1,4	Eusko Jaurlaritza	2,2	1,9
Hispalink	2,2	2,3	Euskal ganberak	2,2	—
Ceprede	2,1	1,8	Laboral kutxa	1,8	—
Caixabank	2,0	—	Confebask	1,8	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
BPG	2,5	3,5	3,7	3,6	3,7	3,2	3,1
Kontsumo pribatua	1,7	3,0	2,9	3,2	3,8	3,9	3,4
Kontsumo publikoa	4,5	2,9	2,3	3,2	2,4	2,0	2,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	3,6	3,5	1,9	5,1	4,8	5,1
- Aktibo finko materialak	4,4	3,3	3,0	2,0	5,7	4,8	5,4
- Eraikuntzan	5,5	4,0	3,4	3,7	5,7	2,5	3,1
- Ekipamendu ondasunetan	2,6	1,9	2,3	-1,1	5,6	9,1	9,8
- Landutako baliabide biologikoak	-4,1	6,0	4,4	8,0	9,2	7,8	7,0
- Jabetza intelektualaren produktuak	12,3	4,6	5,5	1,4	2,6	4,8	3,8
Nazio eskaria (ekarpena)	1,6	3,3	3,1	3,3	4,0	3,6	3,5
Esportazioak	2,2	3,2	2,9	4,9	3,2	3,4	4,2
Inportazioak	0,0	2,9	1,7	4,3	4,4	5,1	6,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA Research	2,5	1,7	Metyis	2,3	1,8
ICAE-UCM	2,5	1,7	Repsol	2,3	1,9
Equipo Económico (Ee)	2,5	2,0	Instituto Estudios Económicos	2,3	1,8
CEEM-URJC	2,5	1,7	Santander	2,3	1,7
Oxford Economics	2,5	1,7	Funcas	2,3	1,6
CEPREDE-UAM	2,5	2,2	Intermoney	2,3	1,9
CEOE	2,5	2,0	Consenso (batez bestea)	2,4	1,9
EthiFinance Ratings	2,5	1,9	Espainiako Bankua (2025-06)	2,4	1,8
Mapfre Economics	2,5	1,7	Gobernua (2025-04)	2,6	2,2
CaixaBank Research	2,4	2,0	ELGA (2025-10)	2,6	2,0
Universidad Loyola Andalucía	2,4	2,2	Europar Batzodea (2025-05)	2,6	2,0
AFI	2,4	2,2	NDF (2025-07)	2,5	1,8
Cámara de Comercio de España	2,4	1,9	AIReF (2025-05)	2,3	1,7

Iturria: Funcas.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
AEB	2,9	2,9	3,1	2,8	2,4	2,0	2,1
Txina	5,2	5,0	4,7	4,6	5,4	5,4	5,2
Japonia	1,5	0,1	-0,7	0,7	1,3	1,6	1,7
Kanada	1,5	1,6	0,5	1,4	1,9	2,3	1,2
Europar Batasuna	0,4	1,0	0,7	1,1	1,5	1,7	1,6
Eurogunea	0,6	0,9	0,5	0,9	1,3	1,6	1,5
Alemania	-0,9	-0,5	-0,6	-0,6	-0,2	0,2	0,2
Frantzia	1,4	1,2	1,0	1,1	0,6	0,6	0,8
Erresuma Batua	0,4	1,1	0,9	1,4	1,9	1,7	1,4
Italia	1,0	0,7	0,6	0,5	0,5	0,7	0,4
Herbehereak	-0,6	1,1	0,8	2,0	2,2	2,5	1,6

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO IRAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2025	2026	2025	2026	2025	2026
AEB	1,7	1,7	2,8	2,7	4,3	4,5
Japonia	1,1	0,6	3,1	1,9	2,5	2,5
Kanada	1,2	1,1	2,1	2,1	7,0	6,8
Europar Batasuna	1,2	1,3	2,1	1,9	—	—
Eurogunea	1,2	1,1	2,1	1,8	6,3	6,3
Alemania	0,2	1,2	2,1	1,9	6,3	6,2
Frantzia	0,6	0,9	1,1	1,5	7,5	7,6
Erresuma Batua	1,2	1,0	3,4	2,6	4,7	4,9
Italia	0,5	0,7	1,7	1,6	6,2	6,2
Espainia	2,5	1,9	2,4	1,9	10,6	10,3
Herbehereak	1,4	1,0	3,1	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.